

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

Behin-behineko balantzea

KALTEAK GIPUZKOAKO ETA BIZKAIKO PORTUETAN

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik "denboraleak eragindako egoerak prebenitzeko eta artatzeko eskaintako arreta" eskertu die Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, udaletako, larrialdi-zerbitzuetako eta enpresetako langileei. Esan duenez, "orain dela egun batzuk olatu batek pertsona bat arrastatu eta hil zuen. Orain, baina, zorionez, ez dugu halakorik deitoratu behar".

Oregiren aburuz, "goiz da oraindik asteburuko denboralearen ondoren euskal portuetan egin behar diren konponketen behin betiko kostua zehazteko; izan ere, kalte gehiago agertuko dira, hasiera batean antzeman ez zirenak, eta kopuruak gora egingo du, adituek aztertu ahala gertatu ohi den bezala". "Azpiegituren Zuzendaritza Ondasuneko arduradunekin eta Jaurlaritzako aseguru-artekaritzako adituekin bilduko da, eta datu gehiago ezagutaraziko ditu".

Oregik zehaztu duenez, "dirudienez, kaltetuena Bermeoko kai-muturra izan da. Zuloak konpontzen ari gara premiaz, Markinatik ekartzen ari garen 10 tonako harri-lubetekin. Horrez gain, kirol-ontziak toki lehor eta seguru batera eramateko prozesua koordinatzen ari gara horien jabeekin, konpon eta babes ditzaten".

Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak garabi bat jarri du amarratzaileen esku, ontziak ateratzeko, eta horietako bakoitzak lonja bat eta eremu bat izango ditu etorkizunean. "30 arrantzalek jo dute Azpiegituren Zuzendaritzara beren gauzetarako toki baten bila, denboraleak Frantxuako lonjetan eragindako kalteak direla-eta. Atzo arratsaldean bilera egin zuten, bada, erabakitzeke zeinek jarrai zezakeen lana lonjan egiten eta zeinek behar zuen beste toki bat uztea. Arrantzaleen eta eremu zehatzen kopurua dakigunean, konponbide azkar bat bilatuko dugu", azaldu du Ingurumen eta Lurralde Plangintzako sailburuak.

Gipuzkoako portuetan eragindako kalteei dagokienez, Ana Oregik berriro esan du "balorazio hauek guztiak gutxi gorabeherakoak" direla.

Mutriku: Dirudienez, dikeak eutsi egin dio, negu-mutur batekin errematatuta badago ere. Dikeko zolatak, erremate-hormak eta 2 pantalanetan egon daitezkeen zuloak konpondu beharko dira soilik, baina oraindik aurreikusi ez diren beste kostu batzuk gehitu beharko dira. Denborale honetan, pantalan bat puskatu da, eta aurrekoan, urtarilaren 7an, beste bat, oraindik ere konponduta ez dagoena.

Deba: Barandak eta zoladurak.

Zumaia: Dikea konpontzea. Bukaera eta erremateko harri-lubetak daude kaltetuta. Gainera, harri-lubetara erori zen garabi bat berreskuratu behar da.

Getaria: Kalteak areagotu litezke, adituen azterketek aurrera egin ahala. Portuko bulegoak eta pantalanak daude kaltetuta.

Orio: kontradikea **urgentziaz** konpontzea. Premiazko espediente-izapidea hasita zegoen, baina kalteak areagotu egin dira, eta baliteke nabigazio-kanala inbaditzea. Sekzioa indartuko da, eta horrek 1.000.000 euroko kostua izango du, gutxienez.

Donostia: Hego-kaiko pantalana puskatu da, eta EKPren bulegoak kaltetu.

Hondarribia: 1.000.000 euroko aurrekontua, Iterlimeneko hegala konponketa aintzat hartzen badugu, Getarian egin den bezala. Errepidea moztuta dago, eta azkar jarduteko premia dago. Erakunde guztiek ados jarri behar dute, Getarian bezala. Bertan, bada, bizilagunak premiaz etxera bueltatzea bermatzeko lanen buru da Eusko Jaurlaritza.

Plentzia: Kalte txikiak Kofradiaren pantalanean. San Balentin dikearen egoera egiaztatzeko dago.

Armintza: Pantalaneko zutabea inguratzen duen aluminiozko profila puskatu da (indartzeko zegoen). Kaiko itsaslabarra erauzi da hainbat tokitan. Kalteak kaleargietan. Ontzi bat hondoratu da orga-arrapatatik gertu. Dikearen karela apurtu da.

Bermeo: Frantxuako kai-muturra hautsi da. Frantxuako zabalgunea: kalte handiak lonjetan eta sarbide-kontrolan. Dikearen bi zati puskatu dira. F pantalana suntsitu da. 12 ontzi hondoratu dira. Zoladura altxatu da. Kaleargiak suntsitu dira. Dikearen hainbat zatitan horma erori da. Xixili kaian lauzak lekuz mugitu dira.

Mundaka: Ainguratze-elementuak suntsitu dira. Pantalan bat desagertu da. 3 ontzi hondoratu dira.

Bizkaiko beste portu batzuetan; **ONDARROA:** ELANTXOBE: LEKEITIO: EA: